



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

EZ DIRA ARTALDE,
EZ DUTE «GORPU
EDER BAT UTZI»
NAHI

Ez dira ardiak. Bistan da. Ez dira, baina animalia horiek irudikatu nahi dituzte, hain zuzen, ez direla artalde gogorarazteko. Ardi itxura izan nahi dute, argi utzita ez direla merkataritza gunek babesleku hartzen dituzten ardiek osatutako artalde. Ardiz mozorrotu dira, baina ez dira larre berde goxoetara bezala amildegira eraman daitekeen artalde. Ardi izan nahi dute artalde ez izateko. Ez merkataritza gunek, ez bazkaleku ez amildegi. Plaza, agora, nahiago dute bilgune, artalde nahi lituzketen ustezko artzainen jukutriak nabarmen uzteko, isilik nahi lituzketen ertzainen gehiegikeriak salatzeke. Hondakinen kudeaketa zeregin eta beharrian serioa dela jakinarazteko eta, hortaz, ez duela zertan inoren negozio izan, are gutxiago herritarren osasuna arriskuan jarriko duen proiektu. Ardi itxura izan nahi dutenen aldamenean, edergailu ugari, akaso Nick Romanok (John Derek "Knock on Any Door" filmean) aldarrikatu moduan, «gorpu eder bat uzteko». Xabier Izaga Gonzalez